

GORBEIA SUZIENEK EUROPARC ERAKUNDEAK FEDME MENDI FEDERAZIOAREN BITARTEZ EMANDAKO "GREEN LABEL CXM TRAIL" INGURUMEN-ZIURTAGIRIA LORTU DU

- Gorbeia Suzien "Green Label CXM Trail" ziurtagiria lortu duen estatuko 4. mendi lasterketa da, eta lehena euskal lasterketen artean.
- Europarc Europako Parke Naturalak biltzen dituen erakundea da eta Alemanian du egoitza.
- Ingurumen-zigilu honek "Naturagune Babestuetan Mendiko Lasterketak Garatzeko Jardunbide Egokien Gida" betetzen dela ziurtatzen du.
- Karbono-aztarna kalkulatzeko datuetan oinarritutako ingurumen-kudeaketa egin dugu.

Iraunkortasunarekin eta ingurumenarekiko errespetuarekin dugun konpromisoa

Gorbeia Suzienen, mendi lasterketa bat antolatzeaz gain, natura babesten eta errespetatzen dugu. Urtero, Gorbeia Parke Naturalean egiten dugun probak ingurumenean duen eragina minimizatzeko prozesu zorrotz bati egin behar diogu aurre. Aurten, Gorbeia Suzieneko antolakuntzatik GREEN LABEL CXM TRAIL EUROPARC-FEDME zigilu ospetsua lortzea izan dugu helburu, eta, horretarako, "Naturagune Babestuetan Mendiko Lasterketak Garatzeko Jardunbide Egokien Gida" hartu dugu oinarri. Ziurtagiri horrek jasangarritasun-estandar altuak betetzeko eskatu digu hiru fasetan zehar: ekitaldiaren plangintza, gauzatzea eta ebaluazioa.

Europarc Europako parke naturalak biltzen dituen erakundea da, eta Alemanian du egoitza.

EUROPARC Federazioa Europako natura- eta kultura-ondarearen sarea da. Naturaren kontserbazio praktikoan eta Europako biodibertsitatearen garapen iraunkorrean aritzen da. Horrez gain, parkeetatik haratago begiratzen du, eta bere eskualdeen, herrialdeen eta Europako gizartearen ingurumen, gizarte eta ekonomia garapenerako duen garrantzia nabarmentzen du.

Ingurumen-zigilu horrek mendiko lasterketetako jardunbide egokien gida betetzen dela ziurtatzen du.

Azken edizio honetan funtsezko neurriak ezarri ditugu, hala nola ingurunearen azterketa eta gure ekitaldiaren ingurumen-inpaktuaren kuantifikazioa, seinaleztapenean berrerabil daitezkeen materialen erabilera eta gure boluntarioen ingurumen-prestakuntza. Gainera, hondakinen bereizketa eta bilketa zorrotza egiten dugu, eta ingurumen-inpaktuari buruzko txosten bat egiten dugu, hondakinak arintzeko eta konpentsatzeko neurriak jasotzen dituen. Ahalegin horiek funtsezkoak dira gure karbono-aztarna murrizteko, bertako flora eta fauna errespetatzeko eta Gorbeia Suzieneko edizio bakoitza ingurune naturala errespetatzeko eredu bat dela ziurtatzeko.

Karbono-aztarna kalkulatzeko datuetan oinarritutako ingurumen-kudeaketa

GREEN LABEL CXM EUROPARC-FEDME ingurumen-ziurtagiria lortzeko asmoz, Gorbeia Suzieneko azken edizio honetan hainbat datu mota bildu ditugu karbono-aztarnaren kalkulua egin ahal izateko. Horrela,

oinarrizko informazioa lortu dugu, eta hortik jarraitu ahal izango dugu lanean, aztarna hori ahalik eta txikiena izan dadin.

Kontsumo-datuak lortu ditugu, urarenak, erregaiak, elektrizitatearenak eta bereizi ondorengo hondakinenak (plastikoak, papera, beira, organikoak eta abar) ingurumen-kudeaketa datuetan oinarritzeko. Estatu mailan modu horretan egiten den lehen proba da. Gainera, Gorbeia Suzieneren konpromisoa da urtero boluntarioekin batera ekintza bat egitea gure ingurune naturala hobetzeko.